Gure bizipena

Familia

Adopzio-familia 2007tik

Haurraren jaioterria: Ukraina

Lau gara familian. Andrei izan zen gurera iristen azkena: Ukrainatik etorri zen, duela hemezortzi urte. Harekin lehenengoz egon ginen egun haietan nolako bizipenak izan genituen kontatu nahi dugu hemen, baita adopzio-prozesua nola bizi izan genuen ere, herrialde hartako egonalditik hasi eta etxera itzuli ginen arte.

2007a zen, abuztuaren 13a, eta Bilbotik Ukrainara joan ginen hegazkinez, lau urteko gure alabatxoarekin. Aldean generaman gonbidapen bat, bi egun barru Kieveko Adopzio Zentrora joatekoa. Semea edo alaba izango genuena ezagutzear ginen. Hainbeste aldiz irudikatua genuen… eta orain, azkenean, jakingo genuen zer aurpegi zuen, zer izen, zer ahots. Ilusioz gainezka gindoazen, kirioak dantzan, arduratuta zeharo. Eta zer, eta ia-ia bukatu zen dena egun hartan bertan, Kieveko aireportuan, iritsi eta inor ez baikenuen zain, inor ez baitzen etorri gure bila. Galduta geunden, zer egin ez genekiela: gure laguntzailearen izena baino ez geneukan, eta telefono-zenbaki bat, baina hara deitu, eta ez genuen ulertzen zer esaten ziguten. Gaizki-ulerturen bat egon zen, dudarik gabe, eta, inork laguntzen ez bazigun, esku-hutsik bueltatu beharko genuen etxera. Zorionez, Santanderren bizi izandako ukrainar batek gure laguntzailearekin hitz egitea lortu zuen, eta, hari esker, aurrera egin ahal izan genuen.

Inoiz nahasita ibili ginen, eta inoiz itxaropena galduta eta etsitzear ere bai, sekula ez baitzen iristen guretzako haur bat hautatuko zuten eguna

Ia bi hilabete egon ginen herrialde hartan, eta gauza harrigarri eta surrealistak gertatu zitzaizkigun. Bi bidaide izan genituen: laguntzaile gisa Espainiatik kontratatua genuen gizon bat eta interprete-lana egiten zigun neska bat. Gure premiez arduratzen ziren, eta gestioak egitera laguntzen ziguten. Luze aritzen ziren elkarrekin hizketan, baina gero guri esaldi bakarrean laburtzen ziguten dena; kuriosoa zen, benetan… Inoiz nahasita ibili ginen, eta inoiz itxaropena galduta eta etsitzear ere bai, sekula ez baitzen iristen guretzako haur bat hautatuko zuten eguna.



Aldi berean, ordea, hiriak berak, Kievek, izugarri erakarri gintuen. Erdialdean bizi ginen. Leku bizi-bizia zen orduan, musikariz eta naturaz betea… Sorgindu egin gintuen, eta hori lagungarria suertatu zitzaigun adopzio-prozesuarekin aurrera segitzeko, luzea eta nekeza izan baitzen. Nik egunero idazten nuen gertatutako gauzarik garrantzitsuenen laburpentxo bat, eta orain testu haien txatal batzuk jarri nahi genituzke hemen, gogora ekartzeko nolakoak izan ziren gure semeaz lehen aldiz hitz egin ziguten egun haiek, eta jakin dezazuen nola ezagutu genuen, eta Ukrainan elkarrekin pasatu genituen lehen egun haiek oroiberritzeko.

Ia hilabete da Ukrainara heldu ginela, eta Adopzio Zentroarekin hitzordu bakarra izatea baino ez dugu lortu. Hitzordu hartan, esan ziguten gaixo larri zeuden umeak besterik ez zutela, eta hobe zela itxarotea; baina hiru aste baino gehiago joan dira jada, eta ez digute deitzen; denbora ahitzen ari zaigu.

Halako batean, bidaia-agentzian geundela etxera itzultzeko txartelak erosteko asmoz, hara non deitu digun gure interpreteak, azken

unean: ez alde egiteko herrialdetik, hitzordu bat dugula bi egun barrurako, eta ume osasuntsu bat aukeratu dutela guretzat. Kasualitatea izan zein ez, bertan gelditzea erabaki dugu.

2007ko irailaren 11 da, eta gaur, azkenean, Andreiren aurpegitxoa ikusi dugu. Haren fitxako argazkia baino ez. Adopzio Zentrora joateko deitu digute, eta, luze itxaron ondoren, psikologoak hartu gaitu, eta umeari buruz hizketan aritu zaigu: 18 hilabete omen ditu, eta esan digu zorte handia dugula hura egokitu zaigulako. Ukraina ekialdean bizi omen da, Donetsk-eko eskualdean. Bihar bertan joango gara, trenean.

Trenean eman dugu gau osoa, eta goizaldean iritsi gara Makiyivka-ra, umezurztegia dagoen herrira. Udaletxera eraman gaituzte, beharrezko tramite guztiak prestatzeko, eta han eman dugu goiz osoa. Gero, Andrei bizi den umezurtz-etxera eraman gaituzte.



Ukrainaren barne-barnealdean gaude; honek ez du zerikusirik Kievekin. Etxeak, jendea, herriak, dena da ezberdina, zaharragoa, zikinagoa, utziagoa. Umezurtz-etxea kanpoaldean dago, landa-aldean. Berdegune zabalak ditu, zuhaitz ugari, eta badago umeentzako parke bat ere; gustatu zaigu.

Zuzendariak hartu gaitu. Ongietorri egin, eta eskerrak eman dizkigu Andrei adoptatzeagatik eta hari etorkizun hobe bat eman nahi izateagatik. Orduan, Andrei azaldu da, zaintzaile bati eskutik helduta. Ume ederra da, handia, ile-motxa, horaila... Hara-hona trostan-trostan ibili da denbora guztian, gelditu ere egin gabe. Besarkadaren bat eskaini diogu. Batengana hurbiltzen zen orain, besteareengana gero... Ez da geldirik egotekoa. Harekin hartu-emanean aritu gara, lerdea zerigula hari begira. Eta, bitartean, gure interpretea eta zuzendaria hitz eta pitz, hitz eta pitz...

Ondorengo egunak mugimendu handikoak izan dira: osasun-azterketa ospitalean, tramiteak, txostenak... Baimena eman digute Andrei ikustera egunero joateko. Zirku hutsa da harekin egotea: gure alabaren peluxeei oldartzen zaie, poltsan daramadan guztia ateratzen du behin eta berriro...; askaria eramaten diogu, eta hark, platanoa hartu, pusketa handi bat ahoan sartu, eta kontrako eztarritik joaten zaio, baina ez diola, ez, jaregingo; ez du murtxikatzen, kolpean irensten du dena. Egunero da horrela: izugarri pozten da ikusten gaituenean, eta zuzen-zuzen motxilara jotzen du, bai baitaki hor jana dagoela. Ez du nahi ez musurik, ez besarkadarik: jana besterik ez du nahi. Pena pixka bat ematen dit gure alabak: hortxe egoten da, alfonbran, haren arreta piztu nahian txorakeriak egiten, baina Andreik ez dio inori kasurik egiten; jan besterik ez du nahi. Esan digute normala dela jokabide hori, ondo elikatuta dauden arren obsesio handia dutela janarekin.

Egunak joan eta egunak etorri, zain gaude, adopzio osoa emango digun epaiketa noiz izango. Azkenean jarri digute eguna, irailaren 21a; nahiko urduri gaude. Epaitegia zementuzko eraikin zahar bat da, iluna, hotza. Epaiketan, galdera pertsonalak egin dizkigu epaileak gure bizimoduaz: ea badugun lanik, osasun-asegururik, etxebizitzarik, eta abar. Dena zuzen dagoela iruditu zaio, eta onespena eman dio adopzioari. Horrekin batera, baimena eman digu Andrei semetzat harturik herrialdetik irteteko. Orain, hamar egun itxaron behar dugu, epaia irmoa izan arte. Epe horretan senideren batek Andrei erreklamatzen badu, ezin izango dugu adoptatu.

Andrei bisitatzen segitu dugu. Poz-pozik jartzen da iristen garenean; jada ez dauka jateko halako antsiarik, eta asko jolasten da gurekin. Zabua izugarri gustatzen zaio. Korrika ibiltzen da, eta erori ere egiten da tarteka, baina ez du negarrik egiten. Arropa erosi diogu. Txoratzen dago zapatekin: ez dago kenaraziko dizkionik.

Egun batzuk igaro dira, eta epaia irmoa da jada: ez du inork erreklamaziorik egin. Kievera itzultzekoak gara, eta zentroko langile guztiak kanpora atera dira agur esatera. Borobilean jarrita, besoz beso ibili dute Andrei, besarkadak eta musuak emanez. Zaintzaile batek denbora gehixeago eduki du berekin, eta negarrari eman dio. Dena izan da oso hunkigarria eta oso tristea aldi berean. Zintzurra itxi zait: sentitu dut umea kentzen ari gintzaizkiela. Baina presaka genbiltzan, trena hartu behar genuen eta.

Gau osoa eman genuen trenean, estu eta larri. Trena bera, eta hainbeste argi, eta hainbeste eraikin…: Andrei sekula ikusi gabea zen halakorik. Izututa egon zen oso, negarrez, zekizkien hitz gutxiak esanez. Gure interpretea saiatu zen hura baretzen, baina tarteka baino ez zuen lortu. Gau luze-luzea izan zen, eta, lehen aldiz, benetan jabetu ginen kreaturatxo babesgabe hori jada gure ardurapean zegoela eta ez beste inorenean, erabat ezezagunak ginela harentzat, eta bera ere bai guretzat, eta ez genuela jarraibide-libururik.

Oro har, nahiko ondo egokitu ginen denok. Indar-olde bat ekarri zigun bizitzara

Kieven paper-kontu gehiago egin behar genituen, eta etxerako lehen hegaldirako txartelak erosi. Irrikaz geunden familiarekin elkartzeko!

Eta azkenean, urriaren 10ean, etxera iritsi ginen. A ze estualdia aireportuan, abioira igo aurretik gerarazi gintuztenean. Izan ere, Andreik Ukrainako pasaportea zuen, eta, adopzioaren sententziaren agiria bagenuen arren, egiaztatu beharra zeukaten. Eraman egin zituzten gure agiri guztiak; ez genuen ezertxo ere ulertzen, eta jada ez geneukan interpreterik. Zain egon ginen, hura sekula bukatuko ez zelakoan, eta hegazkina, gainera, aireratzear zen… Baina, azken-azken orduan, agiriak itzuli zizkiguten, eta pasatzen utzi.

A zer adrenalina-kolpea! Hegazkinak geldialdia egin zuen Milanen, eta, italiera entzun genuenean, zeruko musika iruditu zitzaigun. Oraindik ez geunden etxean, baina akabo ordura arteko urduritasunak eta beldurrak.

Halako batean, iritsi ginen Bilbora, eta hantxe geneukan familia, gure bila etorrita. Izugarria izan zen: hortxe ibili ginen, etengabe hizketan eta elkar besarkatzen, eta umeak ere estu-estu hartu zituzten, baina ez zegoen beldurtuta, ezta nekatuta ere; dena izan zen barrea eta musua. Ematen zuen urteak generamatzala elkar ikusi gabe.

Azkenean, etxean. Nola eskertzen den familiaren laguntza eta babesa!

Lehen urteetan, ez zen zaila izan umea haztea; hasieran, egia da, gauak gogorrak izan ziren, Andreik ez baitzuen lokartu nahi izaten, eta hortxe ibili behar izaten baikenuen, orduak eta orduak hura kulunkatzen, leher egiteraino. Egunez, berriz, nekaezina zen, oso alaia, oso jatorra, eta mundu guztia sorgintzen zuen bere graziarekin. Beharbada haren arrebarentzat izan zen gogorragoa, zeren maiz, zenbait jenderekin, Andreiren xarmagatik ikusezin bihurtzen baitzen, nor-eta beti Andreiren ondoan zegoen hura.

Oro har, nahiko ondo egokitu ginen denok. Indar-olde bat ekarri zigun bizitzara. Hala, bolada batez, oso argitsua izan zen gure etxea, itzalik ez ia, baina, urteak igaro ahala, jokabide-arazoak hasi ziren, zailtasunak, txikixeagoak batzuk eta handixeagoak beste batzuk, eta aurre egin behar izan genien. Gero, berriz, nerabezaroa iritsi zen, eta den-dena aldatu zen.

Sarri jo dugu Ume Alaia elkartera laguntza eske, eta lagundu digute, bai, lagundu digutenez: trebakuntza-saioak eta hitzaldiak eskainiz, psikologoen bidez… Hori dena oso erabilgarria izan da, eta hala da oraindik ere.

Ez da erraza, baina bat eginik segitzen dugu oraindik bide honetan, umorez, ahaleginez, eta, beti-beti, maitasun handiz.

Eskerrik asko zuen babes guztiagatik.